

KANALAK

Gure bezeroekin komunikatzeko kanal ezberdinak erabiliko ditugu:

- Publizitate panfleto/flayer-ak buzoietara banatuko ditugu gure produktuaren berri emateko bezeroari.

- Azoketan stand bat ezarriz bezero potentzialak erakartzen ahaleginduko gara: urtean zehar gure herrian hainbat azoka egiten dira herriko plazan; stand-ez baterik egoten da inguruko eta kanpoko produkuen erakusketa, dastaketa eta salmentarako.

Guk azoka horiek aprobetxatuz stand bat jarriko dugu eta gure janaria probatzera emango dugu dohain. Horrela gure jatekoa gustoko badute, gure negozioaren berri emango diegu.

- Bizkaia Irratian: gure eskualdean ezaguna dugun Bizkaia irratian ere, gure negozioaren funtzionamendua erakustera emango dugu.

- Web orri erakargarri bat egingo dugu: bertan gure negozioaren gora behera guztiak azalduko ditugu. Eskariak ere web orri honen bitartez egin ahal izango dituzte.

- Sare sozialen bitartez (facebook, twitter, instagram) gure zerbitzuen berri emango dugu.



